

KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure proiektua zabaltzeko moduak hurrengoak izango ziren; Kartelak itsastea, iragarki bat egitea eta hitzaldiak ematea gure proiektua aurkezteko. Honela lortuko genuke gure produktua ezaguna egitea biztanleriaren artean. Gainera txirrindularitzako lasterketen babesleak izango ginateke, horrela txirrindu zaleen artean zabalduko litzateke gure produktua.



Produktua ezaguna egiterakoan, gure produktua mundu guztitik banatzeko hainbat kanal erabiliko ditugu, hala nola, beste empresa batzuekin tratua egin, esaterako correos edo amazonekin, eta honela hauen garraio bidez banatzeko gure produktua leku ezberdinetara inongo arazorik gabe. Gainera, jendeak produktua itzultzea nahiko balu bere arrazoiak berri eman beharko liguke eta hauek egokiak balira eta produktuari kalterik egin ez balio itzultzeko aukera emango genioke, eta honela bezeroa ez litzateke gure enpresarekin haserretuko.



Hainbat salmenta kanal sortuko genituzke, hala nola, denda fisiko batzuk hiri ezberdinetan kokatzea edota online denda bat sortzea. Batzuk nahiago izaten dute presentzialki erostea gauzak, besteek berriz nahiago izaten dute internet bidez erostea, eta honexetatik jarriko genituzke bi aukera hauek.

